

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun AraudiaPrestatu eta mantentzearen ard.:
Segurtasun Saila

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: 11/05/02

1. XEDEA	2. IRISMENA
Lantik sozietateari zerbitzuak eskaintzen dizkioten hornitzaileei aplikatu beharreko informazioaren segurtasun araudia finkatzen du.	Lantik-ren zerbitzuen hornitzaileak.

AURKIBIDEA

1. XEDEA	1
2. IRISMENA	1
3. INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA LANTIK-RENTZAT	2
4. ARAUDIAREN ANTOLAKETA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERATZEA	2
5. INFORMAZIOAREN SEGURTASUN ARAUDIA EZ BETETZEA	2
6. INFORMAZIOAREN SEGURTASUNAREN ANTOLAKETAREN ALDERDIAK	3
7. AKTIBOEN KUDEAKETA	3
8. SEGURTASUN FISIKOA ETA INGURUMENEKOA	4
9. KOMUNIKAZIO ETA ERAGIKETEN KUDEAKETA	5
10. SARBIDEAREN KONTROLA	7
11. INFORMAZIO SISTEMAK ESKURATU, GARATU ETA MANTENTZEA	9
12. INFORMAZIOAREN SEGURTASUNAREN GORABEHEREN KUDEAKETA	11
13. LANTIK-REN JARRAITUTASUNAREN KUDEAKETA	12
14. BETETZEA	12
15. AUDITORETZA	13
16. LOTUTAKO DOKUMENTUAK	13
17. BERRIKUSPENEN HISTORIA	13

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

3. Informazioaren segurtasuna Lantik-rentzat**Informazioaren Segurtasunaren garrantzia Lantik-rentzat**

Informazioa, baita jasaten duten pertsonak, prozesuak, sistemak, sareak,... ere, aktibo garrantzitsutzat hartzen dira. Informazioaren erabilgarritasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, benetakotzea eta trazabilitatea, eta jasaten duten aktiboena, funtsezkoak dira informazioaren segurtasunari eutsi, indarreko legaltasuna bete, lehiakortasuna eta bezeroekiko irudi ona edukitzeko.

Informazioaren segurtasun egokia lortzeko ezinbestekoa da berau kudeatzea araudi eta prozedura egokietan oinarrituz. Hauek Lantik-ren aktiboen gainean jarduten duten pertsona guztiek bete behar dituzte bere eginkizunak garatzeko orduan.

Informazioaren Segurtasunaren Araudiaren helburuak

Informazioaren Segurtasunaren Araudiaren helburu globalak honako hauek dira:

- **Esparru Juridikoa**

Informazioaren babes eta segurtasun eta bere negozio prozesu guztiei aplikatu beharreko sistemak **betetzen direla zaintzeko** konpromisoa hartzen da.

- **Arau Esparrua**

Bezeroekin zein hornitzaileekin, informazioaren segurtasunarekin lotuta, ezarritako kontratuko betebeharrak betetzea.

ISO27001 eta ISO27002 Arauetan jasotako Informazioaren Segurtasuneko eskakizunak eta praktika onak betetzea.

4. Araudiaren antolaketa, berrikustea eta eguneratzea

Araudi hau aldian-aldian berrikusiko da. Hala eta guztiz ere, teknologiaren bilakaeratik beragatik, informazioaren segurtasunarekin lotutako mehatxuengatik eta arlo honetako legezko betebeharrak berriak direla kausa, Lantik sozietateak beretzat gordetzen du araudi hau beharrezkoa denean aldatzeko eskubidea. Egindako aldaketak interesaturik dauden alderdi guztiei jakinaraziko zaizkie Lantik-ren web orrian argitaratuz eta ELZak posta elektronikoko bidez bertsio berria jakinaraziz. Lantik-arentzat jarduerak garatzen dituzten langile guztien erantzukizuna da Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasunaren Araudi hau irakurri, ezagutu eta betetzea.

5. Informazioaren Segurtasunaren Araudia ez betetzea

Lantik-ek egokitzen dituen neurriak hartzeko eskubidea beretzat gordetzen du. Neurri hauen artean aipatutako enpresarekin indarrean dauden kontratuak amaitutzat jotzea ere egon daiteke.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

6. Informazioaren segurtasunaren antolaketako alderdiak**Helburuak**

- Zerbitzuren hornitzaileek hauetara jo, tratatu, jakinarazi edo kudeatzen dituzten Lantik-ren informazio aktiboen gainean informazio segurtasunari eustea.

1. Hornitzaileak

- .1 Erakundearen informazioa edo informazioa prozesatzeko zerbitzuak kudeatu, jakinarazi, prozesatu edo hauetara jotzea, edo informazioa prozesatzeko zerbitzuei produktuak edo zerbitzuak gaineratzea, dakarten akordioek (kontratuak) Lantik sozietateak, zerbitzua eskaini aurretik, eskatzen dituen segurtasun kontrolak adieraziko dituzte.

7. Aktiboen kudeaketa**Helburuak**

- Lantik-ren aktiboen babes egokia ezarri eta honi eustea
- Informazioak babes maila egokia jasotzen duela ziurtatzea

1. Aktiboen gaineko erantzukizunak

- .1 Hornitzaileak Lantik sozietateak informazioaren segurtasunaren bere kudeaketan ezarritako aktiboen erabilera onargarriko arauak beteko ditu.

Barneko Araua [NCS-1/1 Segurtasun Araua: Hornitzaileentzako Portaera Informatikoko Kodea](#)

2. Informazioaren sailkapena

- .1 **Lantik-ren jardurekin lotutako informazio guztia konfidentziala da.** Hornitzaileak informazio sistemen erabilerari aplikatutako eginkizun eta betebeharrak bete beharko ditu Lantik sozietateak ezarritako araudiaren arabera.
- .2 Informazioa erabiltzea bermatuta egongo da ezarritako sailkapen irizpidearekin bat etorritik.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

8. Segurtasun fisikoa eta ingurumenekoa**Helburuak**

- Lantik-ren informazio eta instalazioen baimendu gabeko sarbideak, kalteak eta interferentziak aurreikusi eta galaraztea.
- Lantik-ren sistemak babestea, mugatutako segurtasun perimetro batek babestutako arlo babestuetan, segurtasun neurri eta sarbide kontrol egokiak dituztenetan, kokatuz.
- Lantik-ren sistemak babestea jasotzea mantentze edo bestelako arrazoiengatik gune seguruetatik kanpo daudenean eta lekuz aldatzean.
- Lantik-ren informazioa barne hartzen duten informazio sistemen funtzionamendu zuzena kaltetu ahal dezaketen kanpoko edo ingurune faktoreak kontrolatzea.
- Langileek, bere ohiko lanen esparru arruntean, erabilitako informazioa babesteko neurriak inplementatzea.

1. Gune seguruak

- .1 Ezarritako sartzeko kontrol fisikoak zuzen erabiliko dira Lantik sozietateak dituen eremuetan (bulegoak, langelak eta instalazioak) baimendutako langileak bakarrik sartzen direla ziurtatzeko.
- .2 Lantik sozietateak ezarritako zuzentarauak eta babes neurriak jarraituko dira kanpoko eta ingurumeneko balizko mehatxuen aurka.
- .3 Babestutako guneetan lan egiteko ezarritako zuzentarauak beteko dira.
- .4 Lantik-ren instalazioetan dauden bitartean identifikazioa eramatea.

2. Ekipoen segurtasuna

- .1 Azpiegitura teknologikoa segurtatu eta babestutako kokalekuetan ipiniko da kanpoko mehatxuen ondoriozko arriskuak murrizteko xedez.
- .2 Horrela behar duen azpiegitura teknologikoa hornidura elektrikoaren probisioaren akatsen aurka babestuko da.
- .3 Edozein ekipamendu zirkuitu elektriko zein komunikazioetakoarekin eduki beharreko lotura, aldeztu aurretik, baliozkotuta egon behar da, kalteak edo interseptazioak saihesteko xedez.
- .4 Aldeztu aurretik baliozkotzea eskatu behar da eta adierazitako kontrol neurriak ezarriko dira babestutako guneetatik kanpo, Lantik-ean edo erakundetik kanpo, unean-uneko premiengatik, kokatu beharreko azpiegitura guztien gainean.
- .5 Espresuki baimena jasotzen den kasuetan izan ezik, debekatuta dago instalazioetatik Lantik-ren jabetza den edozein IKT azpiegitura edo software ateratzea.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

9. Komunikazio eta eragiketen kudeaketa**Helburuak**

- Lantik sozietateari zerbitzuak eskaintzen dizkioten aktiboen funtzionamendu zuzena eta segurua bermatzea.
- Erantzukizunak ezartzea eta prozedurak ematea bere kudeaketa eta eragiketarako, jarraibide operatiboak, gorabeheren aurrean erantzuteko prozedurak eta eginkizunen banaketa barne hartuta.

1. Erantzukizunak eta jarduteko prozedurak

- .1 Lantik sozietateak, identifikatutako beharrezan arabera, jarduteko prozedura eguneratuak emango dizkie behar dituzten hornitzaileei.
- .2 Azpiegitura eta baliabideen gainean aldaketak egitea debekatuta dago.
- .3 Ezartzen diren harremaneko kontratuetan eta zerbitzu mailako akordioetan erantzukizun arloak eta zereginak bereizita zehaztuko dira, baimendu gabeko aldaketak saihesteko xedez.
- .4 Hornitzaileak eskaintako zerbitzuaren arabera, garapeneko inguruneak eta probak zuzen erabiltzen direla bermaturik egon beharko da.

2. Zerbitzuen horniduraren kudeaketa

- .1 Lantik sozietateak kontrolak egingo ditu zerbitzua eskaini aurretik ezarritako segurtasun errekerimenduak ezarri dituztela eta hauei eusten dietela egiaztatzeko helburuz.
- .2 Eskaintako zerbitzuak aldian-aldian ikuskatu eta berraztertuko dira. Zerbitzu motaren arabera betetzeko auditoretzak finkatu ahal izango dira.
- .3 Kontratutako zerbitzuaren kritikotasun edota arriskuaren arabera, bere horniduraren aldaketak, aldeztu aurretik, Lantik-ek baliozkotu beharko ditu.

3. Sistemaren planifikazio eta onarpenera

- .1 Hornitzaileak erabilitako Lantik-ren jabetzako baliabideen gaineko erabilera ikuskatuko da, hauek gaitasun zuzena dutela bermatzeko xedez, hala orainean bere monitorizazioaren bidez, nola etorkizunean joeren analisia eginez.
- .2 Sistema berrietarako edo lehendik daudenak aldatzeko, hornitzaileen aldetik, onarpen irizpideak ezarriko dira. Garapen eta probako inguruneetan probak egingo dira ekoizpeneko ingurunera zuzen igarotzea bermatzeko. Onarpen formal baten ondoren baino ez da ingurunea ekoizpenera migratuko.

4. Kode maltzur eta deskargagarriaren aurkako babesa

- .1 Baimendutako kodea exekutatzeko debekaturik dago. Ekipoen konfigurazioak bermatuko du baimendutako kodeak funtzionatzen duela horren gainean ezarritako araudian zehaztutakoarekin bat etorritik.

5. Sareen segurtasunaren kudeaketa

- .1 Lantik sozietateak sareetan eta hauek erabiltzen dituzten aplikazioetan eragin ditzaketen mehatxuen aurrean babestea ahalbidetzeko ezarritako kudeaketarako jarduerak eta mekanismoak ez dira saihestuko.
- .2 Segurtasun ezaugarriak, zerbitzu mailak eta kudeatzeko mekanismoak identifikatuko dira hornitzaileek eskaintako sareko zerbitzuaren segurtasuna bermatzeko.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

6. Euskarrien manipulazioa

- .1 Informazioaren euskarri ateragarrien erabilera, aldez aurretik, Lantik sozietateak baliozkotu behar du harremaneko kontratuan jasotako xedeaz bakarrik.
- .2 Lantik-rekin kontratuko harremana amaitzean, hornitzaileari bere eginkizunak garatzeko emandako euskarri ateragarriak itzuli beharko dituzte.
- .3 Informazioa euskarri ateragarrietan erabili eta gordetzea eta euskarrien gaineko erabilera Lantik-ean ezarritako araudiaren bidez araupetuta egongo dira.
- .4 Lantik-ren dokumentaziora (automatizatutako zein automatizatu gabeko gordailu edo artxiboetan kokatuta) jotzea debekatuta dute, kontratatutako zerbitzuaren prestazioan deskribatutako xederako espresuki honetara jotzeko baimena ez dutenek.

7 Informazioaren elkartrukea

- .1 Zerbitzuaren hornitzailearen eta Lantik-ren artean egindako informazio-elkartrukeen gainean, Lantik-ek iritzitako kritikotasunaren arabera, arau, prozedura eta teknikako kontrolak ezarriko dira, aipatutako informazioaren elkartrukea babesten dutenak.
- .2 Informazioaren elkartrukea eta honen tratamendua araupetuta egongo da Lantik-ren eta berau jasotzen duen hornitzailearen arteko harremanetarako kontratu edo akordio egokiaren bidez.
- .3 Zerbitzuaren prestazioak informazioaren zirkulazioa jasotzen duenean, hornitzaileak berau gaizki erabiltzea edo kaltetzea saihesten duten arau eta teknikako kontrolak ezarriko ditu. Lantik-ek beretzat gordetzen du kontrol hauek ikuskatu edo babes gehigarriak ezartzea eskatzeko eskubidea.
- .4 Lantik-ek eskatu ahal izango du mezularitza elektronikoko bidez helarazitako informazioa, hornitzailearen aldetik, egoki babestuta egotea, eta araudi espezifikoak betetzea edo ikuskatu ahal daitezkeen kontrol teknikoak ezartzea eskatu ahal izango du.
- .5 Debekatuta dago Lantik-ren informazioa beste erakunde batzuei ematea. Kontratatutako zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa izanez gero, zerbitzuaren hornitzaileak Lantik-ri, aipatutako informazioa igorri aurretik, baliozkotzeko eskatu beharko dio. Ezarritako legezko errekerimendu eta sailkapen mailen arabera, Lantik-ek segurtasun kontrol espezifikoak eskatuko ditu eta hauek ikuskatu ahal izango dira.

8 Ikuskapena

- .1 Lantik-ek monitorizatzeko elementuak edukiko ditu hornitzailearen jarduerak, salbuespenak eta segurtasun-gertaerak ikuskatzea ahalbidetzen dutenak erakundearen beharizanen arabera. Eta erregistro hauek erabilgarri egongo diren egokitzat jotzen den denboran auzitegiko froga gisa balio izateko xedez edota sarbideen kontrolaren ikuskapenean.
- .2 Hornitzaileak informazio sistemen erabilera ikuskatuko du eta informazio hau aldi-aldi tratatuko da.
- .3 Zerbitzuaren hornitzaileak Lantik-ren informazio sistemen gainean egin ditzakeen administrazio eta eragiketako jarduerak erregistratuko dira.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

10. Sarbidearen kontrola

Helburuak

- Informazio eta informazio sistemetara baimendu gabe jotzea eragozteak.
- Hornitzaileen sarbideetan segurtasuna inplementatzea autentifikatu eta baimentzeko teknikak erabiliz.
- Segurtasuna kontrolatzea Lantik-ren sarearen eta bestelako sare publiko edo pribatuen arteko konexioan.
- Hornitzaileek sistemetan egindako gertaerak eta jarduera kritikoak erregistratu eta berrikustea.
- Hornitzailea kontzientziatzea pasahitz eta ekipoen erabileraren aurrean duen erantzukizunaren gainean.
- Informazioaren segurtasuna bermatzea eramangarriak eta urruneko instalazioak erabiltzen direnean.
- Informazio sistemak eskuratu, garatu eta mantentzea.

1. Lantik-ren eskakizunak sarbidea kontrolatzeko

- .1 Hornitzaileak kontratatutako zerbitzuaren berezko lanak egiteko beharrezko diren sareko baliabide, aplikazio eta informazio bako ezin izango du jo. Hauetara jotzeko eskubideak ahalik eta txikiak izango dira aipatutako beharrezko arabera. Sarbideak kontrolatzeko arauak "jakiteko beharrezkoekin" bat etorri ezarriko dira.

2. Erabiltzailearen sarbidearen kudeaketa

- .1 Hornitzaile guztiak, prestazioaren aurretik eta Lantik-ean zerbitzua amaitzean, erabiltzaileen alta eta baxa eskatu beharko ditu informazio sistemarako sarbidea eman eta ezeztatzen duen erabiltzaileen erregistro eta ezeztapenerako prozedura formalean oinarriturik.
- .2 Bertan parte hartzen duten pertsonak aldatzea dakarren zerbitzuaren prestazioaren aldaketa oro, ahalik eta lasterren, Lantik-ri jakinarazi beharko diote baxa eta alta egokiak egiteko xedez. Lantik-ek egindako esleipenak ikuskatzeko eskubidea beretzat gordetzen du.

3. Erabiltzailearen erantzukizunak

- .1 Hornitzaileari segurtasuneko praktika onak erabiltzea eskatuko zaio bere informazio sistemen gaineko pasahitzaren erabilera eta hautapenean, batez ere pasahitzaren kalitateko politika automatikoak ez dituzten horietan.
- .2 Hornitzaileari eskatuko zaio lanpostua paper eta informazio euskarririk gabe mantentzeko hauek erabili ezean, baita ekipoko pantailan informazioa ezkatuzeko ere honen aurrean ez dagoenean.

4. Sarrerako sarbidearen kontrola

- .1 Hornitzaileari kontratatutako zerbitzua eskaintzeko beharrezko diren zerbitzuetarako sarbidea emango zaio.
- .2 Hornitzaile batek Lantik-ren azpiegiturarako kanpoko konexioak, alde aurretik, baliozkotu beharko dira. Konexioaren arriskuaren analisiaren arabera, ikuskatu ahal daitezkeen segurtasun kontrolak beharrezkoak izango dira.
- .3 Lantik-ren azpiegituren diagnostiko eta konfigurazioko ataketarako sarbide fisiko eta logikoa debekaturik dago. Zerbitzuaren definizioz beharrezkoa izanez gero, aipatutako sarbideak erregistratuko dira.
- .4 Sare bereizitako arkitekturan oinarriturik, hauetarako konexioan zerbitzua eskaintzeko konektibitatearen beharrezko zehatzen arabera egingo dira. Debekaturik dago Lantik-ek alde aurretik baliozkotu ez dituen ibilbide edo sarbideak konfiguratzeko.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

5. Sistema eragileetarako sarbidearen kontrola

- .1 Erabiltzailearen ekipamendurako, sistema eragileetarako sarbidea edukitzeko beharrezkoa izango da saioa egoki hastea Lantik-ren jabariaren gainean zerbitzuak horrela exijitzen badu. Zerbitzari eta komunikazioetako ekipamendurako, berriz, administrazioko eginkizunak zehazki esleitzea beharrezkoa izango da. Zerbitzuak eskatzen duen kasuetan.
- .2 Erabiltzaile guztiek erabiltzailearen identifikatzaile bakarra edukiko dute bere erabilera pertsonal eta eskusiborako.
- .3 Espazituki debekaturik dago sarbide edota aplikazioko kontrolak baliogabetu ahal ditzaketen aplikazioak edota utilitateak erabiltzea, baita kontratatutako zerbitzuaren prestazioarekin lotuta ez daudenak erabiltzea ere.
- .4 Aparteko arrisku mailak identifikatzen diren informazio sistemen gainean murrizketak erabiliko dira konexioko denboretan.

6. Aplikazio eta informaziorako sarbidearen kontrola

- .1 Informaziorako sarbidea mugatuko da hornitzaile bakoitzari kontratatutako zerbitzuetarako, hauek jakiteko duten behararen arabera.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

11. Informazio sistemak eskuratu, garatu eta mantentzea**Helburuak**

- Informazio sistemen bizi-zikloan segurtasun kontrolak betetzea.
- Aplikazioen bizi-zikloan zehar eta oinarritzen diren oinarritzko azpiegituran aplikatzen diren arauak eta prozedurak betetzea.
- Informazio konfidentzialaren erabilera araupetzea.
- Aplikazioen prozesamendu zuzena bermatzea.
- Garapen, proba eta ekoizpeneko inguruneetan informazioaren erabilera zuzena dagoela bermatzea.
- Zaurkortasun teknikoak minimizatzea.

1. Informazio sistemen segurtasuneko eskakizunak

- .1 Zerbitzu berriak kontratatu edota eskuratu baino lehenago, Lantik-ek aurretiko analisia egingo du informazioaren segurtasunari dagokionez. Egoki iritziz gero, arlo honetan errekerimendu espezifikoa jasoko dira eskakizun funtzionalekin batera.

2. Aplikazioen tratamendu zuzena

- .1 Garatutako aplikazioetan sarrera-datuaren baliozkotzea ezarriko da hauek zuzenak eta egokiak direla bermatzeko xedez.
- .2 Garatutako aplikazioen gainean barneko prozesamendu kontrolak ezarriko dira eta hauek informazioaren osotasunaren edozein aldaketa antzematea ahalbidetuko dute, hala akats baten ondoriozkoa nola nahita egindakoa.
- .3 Segurtasun kontrolak ezarriko dira. Hauek prozesuen arteko komunikazio mekanismoak, mezuen benetakotzea eta osasuna bermatuko dituzte.
- .4 Kontrolak ezarriko dira aplikazioen irteera datuak baliozkotzeko, gordetako informazioa zuzena eta egokia dela bermatzea ahalbidetzen dutenak.
- .5 Lantik-ean dagoen Garapen eta Mantentzeko sistematika aplikatuko da (prozedurak, jarraibide teknikoak eta formatuak).

3. Kontrol kriptografikoak

- .1 Informazioaren enkriptatzeak Lantik-ek ezarritako errekerimenduak jarraituko ditu legezko eta negozioko eskakizunak betetzeko, zaurkortasun edo ahultasun ezagunak ez dituen enkriptatze gogorreko algoritmoa erabiliz eta informatikako tresna egokia erabiliz algoritmoa eta gakoa erabiltzeko.
- .2 Hornitzaileak erabiltzen dituen gako kriptografikoak aldaketa, galera eta suntsiketaren aurka babestuta egongo dira. Erabilitako gako publikoen autentikotasuna kontuan hartuko da. Kautotzeko prozesua egiteko orduan ziurtatzeko aginte aitortu batek emandako gakoaren ziurtagiriak erabiliko dira. Honek kontrol eta prozedura egokiak edukiko ditu beharrezko konfiantza maila eskaintzeko.

4. Sistemaren artxiboen segurtasuna

- .1 Lantik-ean ekoizpeneko inguruneetan softwarea ezarri eta eguneratzeko dauden prozedurak erabiliko dira.
- .2 Proben ingurunean datu errealak erabiltzea saihestuko da. Era honetako datuak erabiliz gero, hornitzaileak, Lantik-ren aldetik, baliozkotze egokia eduki beharko du eta proben ingurunean erabili aurretik aipatutako

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

informazioaren disoziazioa bermatuko da. Nolanahi ere, probetarako erabilitako informazioa uneoro babestuta eta kontrolatuta egongo da.

- .3 Programen iturburu eta honekin lotuta dauden elementuetarako sarbidea (diseinuak, zehaztapenak, egiaztatu eta baliozkotzeko planak) Lantik-ek zorrozki kontrolatuko du, nahi gabeko aldaketak edo baimendu gabeko funtzioak sartzea saihesteko.

5. Segurtasuna garapen eta laguntzako prozesuetan

- .1 Lehendik daudenetan sistema berriak edo aldaketa handiak sartu baino lehenago, hornitzaileak Lantik-ean ezarritako aldaketak kudeatzeko prozesua jarraituko du.
- .2 Informazio ihesak gertatzea ahalbidetzen duten egoerak saihestuko dira. Hornitzaileak Lantik-ri egoera hauek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dizkio.
- .3 Lantik-ek hornitzaileak egindako garapena ikuskatu eta kontrolatuko du harremaneko kontratu egokian alde zuzenetik ezarritako errekerimenduetan oinarriturik.

6. Zaurkortasun teknikoaren kudeaketa

- .1 Zerbitzuen hornitzaileak ez ditu baliatuko informazio sistematan identifikatzen diren zaurkortasun teknikoak. Ahalik eta lasterren Lantik-ri jakinaraziko dizkiote.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

12. Informazioaren segurtasun gorabeheren kudeaketa**Helburuak**

- Informazioaren segurtasunari buruzko gertaerak eta ahultasunak jakinarazteko bideak ezartzea.
- Segurtasun gorabeherak kudeatzea.
- Segurtasun gorabeheretatik ikastea.

1. Informazioaren segurtasunaren gertaerak eta ahulguneak jakinaraztea

- .1 Hornitzaileak zerbitzuaren prestazioan gertatzen den edozein segurtasun gorabehera jakinarazi beharko du. Jakinarazpen hau ahalik eta lasterren egin beharko da erabiltzaileei laguntzeko zentroaren bitartez (ELZ). Horretaz gainera, erabilgarri dauden ikuskapen, alerta eta zaurkortasunen elementuak ere erabiliko dira informazioaren segurtasun gorabeherak antzemateko.
- .2 Informazioaren segurtasunarekin lotuta dagoen edozein ahulune erabiltzaileei laguntzeko zentroaren bitartez (ELZ) jakinarazi beharko da. Ez dute egiaztatzen saiatu beharko dagoela susmatzen den segurtasuneko edozein ahulgune.

2. Informazioaren segurtasuneko gorabeheren kudeaketa eta hobekuntzak

- .1 Lantik-ek segurtasuneko gorabehera guztiak kudeatuko ditu eta hornitzailearen laguntza eskatu ahal izango du hauek konpontzeko.
- .2 Aurretik adierazitako kudeaketan oinarriturik, nahasita dauden alderdien ikaskuntza eta azterketarako baliatzea ahalbidetzen duen informazioa erabilgarri egongo da.
- .3 Eskuduna den organo judizialak segurtasuneko gorabehera baten kudeaketan bildutako ebidentziak eskatu ahal izango ditu, hortaz, behar bezala gorde eta zainduta egon beharko dira.

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: 00

Indarrean sartzeko eguna: -

13. Lantik-ren jarraitutasunaren kudeaketa**Helburuak**

- Negozioko prozesuen jarraitutasuna bermatzeko jarraitu beharreko jarraibideak ezartzea.
- Plana aktibatu eta desaktibatzeke jarraibideak ezartzea.

1. Informazioaren segurtasunaren alderdiak Lantik-ren jarraitutasunaren kudeaketan

- .1 Negoziaren jarraitutasun planetik etorritako kontingentzia planek, eragiketak mantendu edo berrezartzea eta beharrezko maila eta denboran informazioa erabilgarri dagoela bermatzea ahalbidetzen dutenek, zerbitzuaren hornitzaileak esku hartzea eskatu ahal dezakete.
- .2 Negoziaren jarraitutasun plana eta eratorritako kontingentzia planak aldian-aldian frogatu eta eguneratuak izango dira eraginkorrak direla ziurtatzeko. Berreskuratzeko taldeen kide guztiek, baita ukitutako edozein hornitzaileak ere, bere erantzukizunak ezagutzen dituztela bermatuta egongo da.

14. Betetzea**Helburuak**

- Lege, araudi eta kontratuko xedapenak betetzea Lantik-ri edota langileari administrazioko zigorrak saihesteko xedez, edo horiek ez betetzearen ondorioz erantzukizun zibil edo penalean erortzea ekiditeko.
- Hornitzaileak Lantik-ren segurtasuneko politika, arauak eta prozedurak betetzen dituela bermatzea.
- Lantik-ren hornitzailearen segurtasuna aldian-aldian berrikustea segurtasuneko politika, arauak eta prozedurak prestazioa egiteko erabilitako informazio sistema eta plataforma teknologikoen gainean egoki aplikatzea bermatzeko helburuz.
- Zerbitzuaren hornitzailearen gaineko ikuskatzeko prozesuaren eraginkortasuna optimizatzea.

1. Legezko errekerimenduak betetzea

- .1 Hornitzaileak bermatuko du jabetza intelektualeko eskubideak eduki ditzakeen materialaren erabilerarekin lotuta ezarritako araudia betetzen dutela .
- .2 Hornitzaileak Lantik-ren aktiboak mehatxu guztien aurrean babestuta daudela zainduko du , kontratu-harremana ezartzen den denbora eta forman zehar, lege, araudi eta enpresako errekerimenduetan oinarriturik.
- .3 Hornitzaileak bermatuko du Norberaren Datuak Babesteko Lege Organikoak (DBLO) ezarritako errekerimenduak eta berau garatzen duen Errege Dekretuan identifikatutako neurriak betetzen direla. Era berean, norberaren datuak dituzten Lantik-ren fitxategien tratamenduaz arduratzen den hornitzaileak Lantik-ek, aipatutako fitxategien jabe gisa, ezartzen dituen errekerimenduak beteko ditu.
- .4 Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudi hau, baita honetatik eratorritakoa ere, informazioa zein informazioa tratatzeko baliabideak gaizki erabiltzea prebenitzen duten elementuak dira.

2. Segurtasuneko politikak eta arauak betetzea eta betetze teknikoak

- .1 Hornitzaileak, bere esparruaren barruan, informazioaren segurtasunari dagokionez ezarritako araudiak betetzen direla zainduko du. Betetzearen berrikuspenen eta eratorritako ekintza zuzentzaileen emaitzak informazioaren

Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia

Berrikuspena: **00**

Indarrean sartzeko eguna: -

segurtasunaren kudeaketaren ebidentziak izango dira erantzukizuneko arlo bakoitzean, eta horniduraren berrikuspenetan kontuan hartuko dira.

- .2 Kontratutako zerbitzuaren eta Lantik-ren beharizanen arabera, informazioaren tratamenduaren baliabideen gaineko betetze teknikoaren egiaztapenak egingo dira, Lantik-ek informazioaren segurtasuna kudeatzeko ezarritako araudian oinarriturik.

3. Informazio sistemen ikuskaritzaren gaineko kontsiderazioa

- .1 Betetzeko ikuskaritzak alde aurretik planifikaturik egongo dira Lantik-ren aktiboen eta eskaintako zerbitzuen gaineko arriskuak saihesteko xedez.
- .2 Ikuskaritzako tresnak zein prozesuan lortutako erregistroak garapeneko edo operatiboen bestelako inguruneetan egongo dira edozein arrisku edo okerreko erabilera saihesteko helburuz. Ikuskaritzan hornitzaile batek parte hartu edo osoki egiten badu, honek dakarren aurretiko arriskua ebaluatu ahal izango da eta hornitzaileen gainean segurtasuneko kontrol espezifikoak eskatu ahal izango dira.

15. Ikuskaritza

Lantik-ek eskatuta, adierazitako puntuen gainean betetzeko ikuskaritzak egin ahal izango dira, Hornitzaileentzako Informazioaren Segurtasun Araudia betetzeko maila zehaztu eta, beharrezkoa izanez gero, zuzentzeko ekintzak ezartzeko xedez.

16. Lotutako dokumentuak

Barneko Araua [NCS-1/1 Segurtasun Politikako Araua: Hornitzaileentzako Portaera Informatikako Kodea](#)

17. BERRIKUSPENEN HISTORIA		
Berrikuspena	Eguna	Aldaketak
00	11/03/24	Arauaren onespena